

# Hizkuntzen kaleko erabileraren neurketa

## UEMA

Azterketaren laburpena

2022ko martxoa



UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA

Hizkuntzen kaleko erabilera neurtu da Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko herrietan bigarren aldiz. Udalerrri horietako batzuek urteak daramatzate gisa horretako neurketak egiten, baina 2017an egin zen lehen aldiz mankomunitate mailako azterketa, kide diren herri gehienetan kaleko erabilera neurtuta. 2021ean egin da bigarren azterketa, eta, hartara, modua jarri du lehen bilakaerak ikusteko. Dokumentu honetan jaso dira kaleko neurketaren nondik norako nagusiak. Soziolinguistika Klusterrak egindako txosten osoa ere eskuragai dago, datuen analisi xehearekin.


## LAGINA

Denera 93 udalerritan neurtu da kaleko erabilera: UEMAko 87 udalerrri eta Tolosaldeko beste sei. 2017ko neurketan baino hamazazpi udalerrri gehiago dira. 93 udalerrri horietan, 71.000 solasaldi eta 227.900 solaskide behatu dira. Akats tarteak  $\pm 0,37$  puntukoa da, %95eko konfiantza mailarekin.

2017ko eta 2021eko datuen konparazioak egiteko, 74 udalerrri hartu dira kontuan, hain justu, bi aldietan neurtutako herriak. Horietan 194.000 solaskide behatu dira, 2017an baino 34.000 gehiago.

Laginaren osaera aldatu egin da adin taldeei erreparatuz gero. Bi adin taldek presentzia txikiagoa dute 2017an baino: umeek (-2,7) eta adinekoek (-0,9). Beste bi taldek, handiagoa: gazteek (+1,3) eta helduek (+2,2). Nolanahi ere, biztanleriarekin alderatuta, pisu txikiagoa dute adinekoek (-9,7) eta heldu nagusiek (-9,3), eta handiagoa umeek (+12,9), gazteek (+0,7) eta heldu gazteek (+5,4).

### 1. grafikoa: Laginaren osaera adin taldeen arabera (%)



\* 2017ko laginean ez daude bereizita heldu gazteak eta heldu nagusiak: biak batuta, %47,1 ziren 2017an.


**Elkarrizketa kopuru handiagoa jaso da 2021ean 2017an baino, eta hori zuzenean lotua dago neurketetan egindako errefortzuekin: neurtzaile gehiago aritu dira lanean, eta ordu gehiago egin dute behaketa. Izan ere, COVID-19ak eragina izan du datuak biltzerakoan: kalean jende gutxiago ibili da, eta maskararen eraginez nekezagoa izan da solasaldiak entzutea. Kalearen osaera ere aldatu da, laginak erakutsi duenez, adin taldeen arabera presentzia aldatu baita. Biztanleria datuekin alderatuta, pisu handiagoa dute adin talde batzuek eta txikiagoa beste batzuek: neurketetan ohikoa izaten da hori, biztanle guztiak ez baitira kalean berdin ibiltzen.**

## ERABILERA OROKORRA

Udalerrri guztiak aintzat hartuta, hau da kaleko erabilaren argazki orokorra: euskaraz entzun dira hamarretik sei (%61,1), eta gaztelaniaz ia hamarretik lau (%36,9); beste hizkuntzetan, %2,0.

Bi aldietan neurtutako herrietan zerbait handiagoa da euskararen erabilera (%61,5); datua bera da 2017an eta 2021ean. Apenas aldatu dira gaztelaniaren erabilera (%36,6) eta gainerakoena (%1,9).

2. grafikoa: Kaleko erabilera orokorra (%)




**Gisa bereko emaitza eman dute 2017ko eta 2021eko neurketek: bostetik hiru euskaraz. Datua berbera izateak oinarri sendoa ematen dio ikerketaren fidagarritasunari, milaka elkarrizketa eta solaskide behatu ondoren argazki orokorra apenas aldatu baita lau urtean. Nolanahi ere, ikusiko denez, nahiz eta erabilera orokorra ez aldatu, horren azpian izan dira mugimenduak.**

## UDALERRI TIPOLOGIAREN ARABERAKO ERABILERA


Hiru multzotan sailkatu dira herriak, euskaldunen ehunekoa kontuan hartuta: euskaldunak %60-80 diren herriak; %80-90ekoak; eta %90etik gorakoak. Joera nabarmena da: euskaldunen ehuneko handiagoarekin, euskararen erabilera handiagoa da kalean. Koskarik handiena lehen bi multzoen artean dago, 25 puntukoa ia. Bigarren sailetik hirugarrenera, berriz, apalagoa da aldea: bost puntu.

3. grafikoa: Kaleko erabilera, udalerriko euskaldun portzentajearen arabera (%)



Zein da bilakaera, ordea? 2017an eta 2021ean aztertutako 73 udalerririk oinarritzat hartuta, bi joera ageri dira. Batetik, %60-80 multzoko udalerririk: euskararen erabilera puntu bat areagotu da (%54tik %55era). Bestetik, %80tik gorako bi multzoetan jaitsi egin da erabilera, hiru puntu: %80-90 multzoko herrietan, %82tik %79ra gutxitu da; %90etik gorako herri multzoan, %86tik %83ra.

4. grafikoa: Kaleko erabilera alderagarria, udalerriko euskaldun portzentajearen arabera (%)




Udalerrri tipologiaren arabera erabilera datuek bistan utzi dute eremu soziolinguistikoak zenbateko garrantzia duen euskararen erabileran: zenbat eta euskaldun gehiago, erabiltzeko aukera gehiago eta erabiltzeko joera handiagoa. Adierazgarria da zer alde dagoen euskaldun portzentajea %80tik gorakoa edo beherakoa izan: 25 puntuko gorabehera. Bilakaeran, ordea, txanponaren beste alde nabari da: arnaguneetan jaitsi egin da kaleko erabilera, hiru puntu, eta, gisa horretara, berretsi egin da beste azterketa batzuek arnaguneen bilakaeraz diotena, alegia, udalerririk euskaldunenetan joera negatiboa ageri dutela adierazle soziolinguistikoek.

## ADINAREN ARABERAKO ERABILERA


Joera nagusia hau da: zenbat eta helduago, euskararen erabilera txikiagoa —adinekoetan dago salbuespena, adinekoen erabilera zerbait handiagoa baita heldu nagusiena baino—. Hurrek erabiltzen dute euskara gehien (%76), eta heldu nagusiek gutxien (%50). 2021eko neurketan aldaketa metodologiko bat egin da adinaren arabera azterketa egiteko: bitan bereizi da helduen multzoa (25-39 urte eta 40-64 urte), eta ikusi da funtsa izan duela aldaketak, 13 puntuko tartea baitago bien artean (%63 - %50). 25-39 urtekoen erabilera gertuago dago gazteenetik (%66 - %63).

5. grafikoa: Kaleko erabilera, adinaren arabera (%)



Bilakaerari dagokionez, ez dago diferentzia oso nabarmenik 2017ko eta 2021eko datuen artean. Gazteen erabilera jaitsi egin da (-1,6), eta adinekoena ere bai (-1,3); euskararen erabilera areagotu egin da, berriz, umeetan (+0,6) eta helduetan (+1,1). Gorabehera horiek izan arren, joera nagusia bere horretan dago: umeen erabilera da handiena, eta adinean gora joanda, pixkanaka jaitsiz doa.

## 6. grafikoa: Kaleko erabilera alderagarria, adinaren arabera (%)




**Neurketetan ohikoak diren joerak agertu dira emaitzetan: umeek egiten dute euskaraz gehien, eta adinean gora egin ahala jaisten joaten da erabilera. Udalerri euskaldunen kasuan, zerbait hazten da erabilera adinekoetan. Joera hori gutxi-asko bat dator euskararen ezagutzarekin. Adin talde berria sortu da 2021eko neurketan, eta argazki osoagoa lortu da horrela. Finean, hiru multzotan bereiz daiteke erabilera: umeak (%75 bueltan), gazteak eta heldu gazteak (%65 inguruan), eta heldu nagusiak eta adinekoak (%50 pasatxo). Adin taldeen bilakaera aztertuta, gazteetan dago alde handiena, 1,6 puntuko galera —akats tartearen barruan legoke aldea—. Ñabardura bat badu datu horrek: gazteak gazteekin daudenean, erabilera handiagoa da gazteak helduekin daudenean baino. Hots, gainerako adin taldeek eragina daukate gazteen jardunean.**

## HAURREN PRESENTZIAREN ARABERAKO ERABILERA

Euskararen erabileran nabarmen eragin ohi du haurren presentziak. Bi aldetatik: batetik, umeek erabiltzen dutelako euskara gehien; bestetik, umeak ez direnek ere gehiago erabiltzen dutelako euskara umeekin daudenean. Hori xeheago aztertu da haurren eta gainerakoen arteko solasaldiei erreparatuta. Aparte daudenean, hau da joera: haurren erabilera %76koa da, eta gainerakoena, adin talde guztiak aintzat hartuta, %57koa. Elkartzen direnean, %73koa. Horra aldaketa, beraz. Hori xeheago azter daiteke: umeak eta nagusiak elkarrekin daudela, hizlariaren arabera zenbateko erabilera duen euskarak. Aldea dago: umeak nagusiekin ari direla, %77; nagusiak umeekin, %69.

7. grafikoa: Kaleko erabilera, umeen presentziaren arabera (%)




**Haurren presentziak nabarmen areagotzen du euskararen erabilera, bestela erdaraz jarduten den euskaldun multzo batek euskara erabiltzen baitu umeekin. Ez haiek bakarrik: umeek ere euskara gehixeago egiten dute helduekin, beren kideko hurrekin baino. Joera horietan, hala ere, jardunari ez ezik, errepara dakioko umeek ikusten dutenari ere: haiena baino ia hogeita puntu apalagoa da helduen erabilera, eta elkarrekin daudenean ere, zortzi puntu baxuagoa. Datuek erakusten dute umeen presentzia indargarri dela helduen erabileran eragiteko, ohiko joera baita hurrekin gehiago egitea euskaraz, baina, aldi berean, umeen begietara, bestelako ondorio bat ere nabarmena da: helduen erabilera bestelakoa dela ikusten dute hurrek kalean.**

## SEXUAREN ARABERAKO ERABILERA

Euskararen erabileran puntu eta erdiko aldea dago sexuaren arabera: emakumeek gehixeago egiten dute (%61,7 emakumeek eta %60,3 gizonak). Adin talde guztietan agertu da joera hori, adinekoen multzoan izan ezik. Sexuaren araberako alderik handienak gazteetan (6,6) eta umeetan (4,1) daude, betiere emakumeak gainera direla; gainerako multzoetan, bi puntu ingurukoak dira aldeak.

8. grafikoa: Kaleko erabilera, sexuaren arabera (%)



**Kaleko neurketetan aldiz aldi nabari da diferentzia txiki bat sexuaren arabera: emakumeek gehiago egiten dute euskaraz. Adierazgarria da UEMAko herrietako neurketen ondorioa: alderik handiena gazteetan eta umeetan dago. Aztertzeoak dira horren oinarrian dauden faktoreak, eta, soziolinguistikaren esparrutik ez ezik, genero ikuspegitik ere erreparatzekoak.**



# UEMAren BALORAZIOa KALE NEURKETEi BURUZ

Hizkuntzen kaleko erabilera neurtu da Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko herrietan. Datuei buruzko txostenaren osagarri, hona hemen Aritz Abaroa jarduneko lehendakariaren iritzia.

- **Lagina.** «Neurketa handia egin da, 71.000 solasaldi eta 227.900 solaskide aztertuta, eta horrek fidagarritasun estatistiko handia eman dio neurketari. Ez da lan erraza izan: osasun egoerak zaildu egin du neurketak egitea, kalean jende gutxiago zebilelako eta maskararen ondorioz solasaldiak entzutea nekezagoa izan delako. Horregatik, txalotu egin nahi dugu ehunka boluntariok herriz herri egin duten lana. Ezinbestekoa izan da».
- **Emaitza orokorra.** «Aurreko neurketaren oso antzekoak dira erabilera datu orokorrak: bostetik hiru pasatxo aritzen dira kalean euskaraz UEMAko udalerrietan. Ikerketa sendoa dela esan nahi du lau urteren ostean gisa bereko datuak jasotzeak: hori da kaleko argazkia. Datu orokorretatik harago, noski, badira gorabeherak herriz herri eta eskualdez eskualde, eta horiek aztertzeari ekingo diogu orain, tokian-tokian izan diren aldaketak lantzeari».
- **Arnasguneak.** «Udalerriko euskaldun dentsitateak zerikusi zuzena du erabileran, datuek erakutsi dutenez: euskaldun gehiagorekin, erabilera handiagoa da. Espero izatekoa da. Euskaldunen dentsitatea eta trinkotasuna oso garrantzitsua da euskara erabiltzeko, eta hori da, hain justu, udalerrri euskaldunek euskararen normalizazioan jokatzen duten rol garrantzitsuenetako bat. Nolanahi ere, azken urteetan ohartarazten ari garen eran, ezin da pentsatu euskaldun dentsitate handieneko eremuak arriskurik gabe daudenik. Hain justu, neurketak erakutsi du euskaldunak %80tik gora diren herrietan behera egin duela euskararen erabilerak. Ez da galera handia lau urteko tartean, baina bai arnasguneen bilakaerari buruzko beste zantzu bat. Bilakaera negatiboa izaten ari dira eremu horiek».
- **Adina.** «Adinaren eragina oso nabarmena da euskararen erabileran: adinean gora egin ahala, jaitsi egiten da euskarazko jarduna. Kontuan izan behar da euskararen ezagutza ere ez dela berbera adin talde guztietan: adin talde gazteetan, ia unibertsala da ezagutza udalerrri euskaldunetan, baina adinean gora joanda, jaitsi egiten da, nahiz eta adin talde guztietan gehiengo den euskalduna. Adin taldeen bilakaeran badira gorabeherak, eta kezkarako motibo izan daiteke gazteen jaitsiera, nahiz eta hori ere ez den oso handia. Gure herrietan bada kezka belaunaldi berrien erabilerarekin lotuta. Aldaketa handiak ari

dira gertatzen denbora gutxian, eta horiek aztertzen ari da UEMA; besteak beste, eskola giroko erabilerari eta ikus-entzunezkoen kontsumoari buruzko azterketak lantzen ari gara».

- **Sexua.** «Beste azterketa batzuek erakutsi duten eran, neurketa honetan ere emakumeen erabilera zerbait handiagoa da gizonena baino. Adierazgarria da, gainera, UEMAKo herrietako datuek zer azaleratu duten: belaunaldi gazteetan dago diferentziarik handiena. Gai hori aztertzeari ekin diote azken urteotan hainbat eragilek —besteak beste, Eusko Jaurlaritzak Berdintzen bekak sortu ditu—, eta udalerrri euskaldunetan ere aztertzekoa da generoak zer-nola eragiten duen egoera soziolinguistikoan, erabileran eta bestelakoetan».
- **Diagnostikoa.** «Neurketak modua jarri digu UEMAKo udalerrietan kaleko errealitatea zein den jakiteko. Aldagai garrantzitsua da euskararen bilakaera aztertzeko. Aurki izango dugu modua analisi xeheagoa egiteko, 2021eko beste azterketa batzuen emaitzekin: Euskal Herriko kale erabileraren neurketa, Inkesta Soziolinguistikoa eta biztanleria zentsua».